Bizkaia foru aldundia diputación foral

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: 77
Nork aurkeztu du: Eusko Jaurlaritza -Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza
Aurkezpen data: 2022/02/25

Sugerencia Nº: 77
Presentada por: Gobierno Vasco -Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología
Fecha de presentación: 25/02/2022

IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalean eragina izan dezaketen babes zibileko arriskuei dagokienez, aurrerapen-espedientean 2018ko ekainaren 19an emandako txostenera igortzen da, uholde-arriskuari dagokionez izan ezik, horri buruzko informazioa eguneratzea beharrezkotzat hartzen baita.

2. Hala, uholde-arriskuari dagokionez, aplikatzekoa den araudia gogorarazten da:

- 22/1988 Legea, uztailaren 28koa, Kostaldeei buruzkoa eta Kostaldeei buruzko Erregelamendu Orokorra, Itsas Jabari Publikoaren mugaketak Eremu Funtzionalari eragiten diolako.
- Kantauri Ekialdeko eta Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoetako plan hidrologikoak, jabari publiko hidraulikoaren gaineko eraginengatik.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (LPS).
- Dagokion administrazio hidraulikoaren nahitaezko baimenean ezartzen diren baldintzak betetzea.

3. 2018ko ekainaren 19an emandako txostenak hiru atal ditu:

1. ATALA. Sarrera.

Babes zibileko arriskuei buruzko informazioa

RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. En relación con los riesgos de protección civil que puedan afectar al Área Funcional del Bilbao Metropolitano, se remite al informe emitido anteriormente en el expediente de Avance, con fecha 19 de junio de 2018, salvo en lo relativo al riesgo de inundaciones, cuya información se considera necesario actualizar.

2. Así, en relación con el riesgo de inundabilidad, se recuerda la normativa de aplicación:

- Ley 22/1988, de 28 julio, de Costas y el Reglamento General de Costas, por hallarse afectada el Área Funcional por el deslinde del Dominio Público Marítimo.

-Planes Hidrológicos de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental y del Cantábrico Occidental, por las afecciones al Dominio Público Hidráulico.

-PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV.

-Cumplimiento de los condicionantes que se impongan en la preceptiva autorización de la correspondiente administración hidráulica.

3. El informe emitido con fecha 19 de junio de 2018, se estructura en tres apartados:

APARTADO 1. Introducción.

Se indica que la información de los riesgos de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7YGU-1FA0-0U53-3X8T
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

lurralde-antolamenduaren arloko organo eskudunei igortzen zaiela adierazten da, lurralde-antolamenduko tresnak prestatzean kontuan har dezaten.

protección civil se remite a los órganos competentes en materia de Ordenación del Territorio para que sea considerada en la elaboración de los instrumentos de ordenación territorial.

Bestalde, larrialdietako udal-plana duten Eremu Funtzionaleko 26 udalerriak aipatzen dira.

Asimismo, se señalan los 26 municipios del Área Funcional que disponen de Plan de Emergencia Municipal.

2. ATALA. Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionaleko babes zibileko arriskuen analisia:

APARTADO 2. Análisis de los riesgos de protección civil en el área funcional de Bilbao Metropolitano:

- Uholde-arriskuari lotutakoak:

-Riesgos asociados a la inundabilidad:

Adierazten da EAEko baliabide hidraulikoen plangintzak Plan Hidrologiko Nazionalean eta arroko plan hidrologikoetan ezarritako zehaztapenak beteko dituela.

Se señala que la planificación de los recursos hidráulicos en la CAPV atenderá a las determinaciones establecidas en el Plan Hidrológico Nacional y los Planes Hidrológicos de Cuenca.

Bestalde, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialeko xedapenetara egokituko da, bi helburuarekin: uholde-arriskutik babestea urpean gera daitezkeen eremuak, batez ere populazio-eremuetan, eta lurzoruaren erabilerak arautzea ibaiertzetan eta urpean gera daitezkeen eremuetan, babesteko edo defendatzeko estrategiak aplikatuz ibai-tarteen egoeraren arabera.

Asimismo, se acomodará a las disposiciones del PTS de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV, con un doble objetivo: la protección ante el riesgo de inundación de las zonas inundables, sobre todo en los ámbitos poblacionales, y la regulación de los usos del suelo en el conjunto de las márgenes fluviales y sus zonas inundables, aplicándose estrategias de preservación o de defensa en función de la situación de los tramos fluviales.

Halaber, gogorarazten da kontuan hartzen direla Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua eta uholde-arriskuen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentarautik eratorritako azterlanak. Uholde-arriskuaren atariko ebaluazioa (UAAE) eta uholde-arrisku potentzial handiko eremuak (UAPHE) identifikatzea; arriskugarritasun-mapak eta uholde-arriskuaren mapak, eta uholde-arriskua kudeatzeko planak (UAKP).

También se recuerda la consideración del Reglamento del Dominio Público Hidráulico, y de los estudios derivados de la Directiva 2007/60/CE relativa a la evaluación y gestión de los riesgos de inundación: Evaluación Preliminar del Riesgo de Inundación (EPRI) e identificación de las áreas de riesgo potencial significativo de inundación (ARPSIs), Mapas de peligrosidad y mapas de riesgo de inundación y Planes de Gestión del Riesgo de Inundación (PGRIs).

Azkenik, Geo Euskadi bisoreko uholde-arriskuaren geruzara igortzen da (Segurtasuna ››› Babes Zibilaren Arrisku-Mapak ››› Uholde arriskua), eta adierazten da Eremu Funtzionalean prezipitazio-isomaximoa 200 eta 375 mm artekoa dela eguneko, 500 urteko errepikatze-denboran, eta kontuan hartuko dela drainatze-obra guztiak diseinatzeko.

Por último, se remite a la capa de Inundabilidad del visor de Geo Euskadi (Salud y Seguridad ›››Mapas de Riesgos en Protección Civil››› Inundabilidad) y se señala que la isomáxima de precipitación en el AF de entre 200 y 375 mm/día para un periodo de retorno de 500 años se tendrá en cuenta para el diseño de todas las obras de drenaje.

- Arrisku sismikoa:

-Riesgo Sísmico:

Adierazten da Eremu Funtzionala IV-V eta V intentsitateko eremuen artean dagoela, Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren

Se indica que el Área Funcional se sitúa en las zonas de intensidad IV-V y V según el Plan de Emergencias ante el Riesgo Sísmico, con lo

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7YGU-1FA0-0U53-3X8T
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

arabera. Beraz, ez da larrialdi-plan sismikorik egin behar, baina gogorarazten da eraikin berrietan kontuan hartu beharko dela Eraikuntza Sismorresistentearen Araua: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02), irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartua.

que está exenta de realizar un Plan de Emergencia Sísmico, aunque se recuerda que las nuevas edificaciones deberán tener en cuenta la Norma de Construcción Sismorresistente: parte general y edificación (NCSR-02) aprobada por el RD 997/2002, de 27 de septiembre.

-Baso-sute arriskua:

Adierazten da hirigintza-plangintzak kontuan hartu behar dituela Baso-suteen Arriskuagatiko Larrialdietarako Babes Zibilaren Plangintzako Oinarrizko Gidalerroaren mugak eta baldintzak, bai eta EAEko Baso-suteen Arriskuagatiko Larrialdietarako Plan Bereziaren VI. eta VII. eranskinetako baldintzak ere, eremu jakin batzuetako erabileretarako autobabes-plan bat egiteko betebeharrari dagokionez.

Bestalde, Geo Euskadi bisoreko baso-suteen geruzara igortzen da (Segurtasuna ››› Babes Zibilaren Arrisku-Mapak ››› Baso sute arriskua).

-Riesgo de Incendio Forestal:

Se señala que la planificación urbanística debe tener en cuenta las limitaciones y condicionantes de la Directriz Básica de Planificación de Protección civil de Emergencia por Riesgo de Incendios Forestales y los condicionantes de los Anexos VI y VII del Plan Especial de Emergencias por Riesgo de Incendios Forestales de la CAPV en relación con la obligatoriedad de realizar un Plan de Autoprotección para los usos en determinadas zonas.

Asimismo, se remite a la capa de Incendios Forestales del visor de Geo Euskadi (Salud y Seguridad ›››Mapas de Riesgos en Protección Civil››› Incendios Forestales)

- Arrisku teknologikoak:

Salgai arriskutsuak garraiatzearen ondoriozko arriskuak eta SEVESO III araudia bereizten dira. Lehenengoei dagokienez, salgai arriskutsuen zirkulazioak eragindako bideak identifikatzen dira, eta Geo Euskadi bisoreko salgai arriskutsuen garraioaren geruzara igortzen da (Segurtasuna ››› Babes Zibilaren Arrisku-Mapak ››› Salerosgai Arriskutsuen garraioa). SEVESO III araudiari dagokionez, zeina substantzia arriskutsuak maneiatzen dituzten enpresei aplikatzekoa baita, eraginpeko zenbait enpresa identifikatzen dira, eta Geo Euskadi bisoreko SEVESO enpresen geruzara igortzen da (Segurtasuna ››› Babes Zibilaren Arrisku-Mapak ››› SEVESO enpresak).

-Riesgos tecnológicos:

Se distingue entre riesgos por el transporte de mercancías peligrosas y normativa SEVESO III. Respecto de los primeros, se identifican las vías afectadas por la circulación de mercancías peligrosas y se remite a la capa de Transporte de Mercancías Peligrosas del visor de Geo Euskadi (Salud y Seguridad ›››Mapas de Riesgos en Protección Civil››› Transporte de Mercancías Peligrosas). Respecto a la normativa SEVESO III, de aplicación a empresas en las que intervienen sustancias peligrosas, se identifican una serie de empresas afectadas y se remite a la capa de Establecimientos Seveso del visor de Geo Euskadi (Salud y Seguridad ›››Mapas de Riesgos en Protección Civil››› Establecimientos Seveso).

## 3. ATALA. Dokumentazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko babes zibileko arauen zerrenda bat jasotzen da, bai eta erreferentziazko beste arau eta dokumentazio tekniko batzuk ere.

## APARTADO 3. Documentación

Se recoge un listado de normativa vasca y estatal de protección civil, así como otras normas y documentación técnica de referencia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7YGU-1FA0-0U53-3X8T
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Eskertu egiten dugu jasotako informazioa, eta kontuan izango dugu LPParen behin-behineko onespenaren dokumentua egitean.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Se agradece la información recibida, que será tenida en cuenta en la elaboración del documento de aprobación provisional del PTP.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: 7YGU-1FA0-0U53-3X8T
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus